

HIRIGINTZA FITXA. - 29 SO. DEBA IBAIAREN ESTUARIOA

DEBA ALDEA

DEBA IBAIAREN ESTUARIOKO PLAN BEREZIAREN HIRIGINTZA FITXAAzalera Mutrikuko udal barrutian: 74.685 m² . (1)Azalera Debako udal barrutian: 72.554 m² . (1)**I. ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.**

- Deba ibaiaren estuarioaren hirigintza planeamendua Deba eta Mutrikuko udalen artean bateragarri egitea.
- Bi udalerrien arteko eta udalerrri horien eta eskualdearen arteko komunikazioak hobetzea.
- Estuarioaren eta hondartzen ingurumena babestu eta hobetzea.
- Estuarioaren baliabideak aisia eta turismo jardueretarako baliatzea.
- Estuarioaren esparruan lurzoru politika zuhurra garatzea.
- Dikeak, hormak edota harri lubetak konpondu, hobetu eta handitzeko obrak antolatzea.
- Udalaz gaindiko komunitatearen ekipamendua Reinerko zelaigunean.
- Plangintza orokor eta integratzailea.

II. FUNTSEZKO XEDAPENAK**1. KALIFIKAZIO OROKORRA:**

Hiribide nagusiak.	2.115 m ²
Oinezkoentzako ibilbideak	8.768 m ²
Portu erabilerako zona	1.417 m ²
Portuko espazio libreak.	3.180 m ²
Amarre gunek tradizionalak.	4.234 m ²
Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa.	50.921 m ²
Hondartza zerbitzua.	1.919 m ²

2. LURZORUAREN SAILKAPENA:

Hiritarra.

3. PLANEAMENDUA GARATZEKO ETA GAUZATZEKO ERREGIMENA:

Deba eta Mutrikuko udalerrietan eragina duen plan berezi bat idatzi eta izapidetu beharko da. Planaren eragina dela eta, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko lurretan jarduketak egiteko beharrezkoa izango da horretarako eskumena emango duen titulua lortzea, 22/1988 Kosta Legean xedatutakoari jarraiki.

4. ERAIKUNTZA PROBETXAMENDURAKO BALDINTZAK.

Gehieneko probetxamendua:	0,50 m ² (t)/ (s).
Erabilera intentsitatea:	Plan bereziak zehaztuko du.
Gehieneko altuera:	10 metro.
Profila:	BS+ II.

5. LAGAPENAK ETA ZORPENAK.

Jabari publikoko lurzorua; haren erabilera plan bereziak arautuko du.

6. BERARIAZKO HIRIGINTZA KARGAK.

- Trazatua zuzendu eta GI-638 errepidearen zeharbidean abiadura murrizteko neurriak hartzea.
- Oraingo zubia oinezkoentzat jartzea edo zirkulazioa murriztea eta oinezkoentzako pasabide bat egitea.
- Aparkalekuak, hondartzetarako sarbideak eta oinezkoentzako pasealekuak ibaiaren ezker aldean.

- Oro har, fitxa grafikoan proposatu eta Arauen 111. artikuluan adierazitako mugaketaren barruko zonaren hiritartzea.

III. GARAPENeko PLANEAMENDUAREN BALDINTZAK:

1. Kalifikazio xehekatua.

Plan bereziak zehaztuko du.

2. Lerrokadurak eta sestrak.

Plan bereziak zehaztuko du.

3. Hirigintza kudeaketarako eta gauzapenerako baldintzak.

Desjabetze sistema erabiliko da.

4. Jarduketa programa.

Plan bereziak zehaztuko du.

5. Eraikuntza, jabari eta erabilerako baldintza bereziak.

Plan bereziak zehaztuko du. Jabaria publikoa izango da.